

Hernio-Gazume Kontserbazio Bereziko Eremua (KBE)



Zer da Natura 2000 Sarea?

Europar Batasunak bere lurraldean ingurumen arazo larria antzeman zuen: **espezie aniztasunaren (biodibertsitatearen) galera**. Honi aurre egiteko, espezieak eta hauek bizi diren tokiak (habitata) babestea erabaki du. Eremu edo toki hauek "Natura 2000" deitzen den Babestutako Tokien sarea osatzen dute. Honela, gure kasuan, **Hernio-Gazume Kontserbazio Bereziko Eremua (KBE)**, sare horren barruan dagoen Babestutako Toki horietako bat da.

Hernio-Gazumen, Europar Batasunaren intereseko habitata eta espezieak daude, hain zuzen, habitantei buruzko 92/43/EEE Zuzentarauaren I. eta II. eranskinetan jasotakoak, bai eta basoko hegaztien kontserbazioari buruzko 2009/147/EE Zuzentarauaren I. eranskinean jasotako hegazti-espezieak ere.

Zer da biodibertsitatea?

Lurreko bizidunen aniztasun osoa da. Biodibertsitatea ez dute osatzen bakarrik espezi araroek, aniztasun handieneko eremu bereziek, animalia ikusgarriek ala balio ekonomiko dutenek. Espezie bizidun guztiak osatzen dute, baita horiek bizi diren habitatek eta espezie bakoitzaren baitan ematen den aniztasun genetikoak ere.

Biodibertsitatearen garrantzia?

Demagun, landare-mota bakarra legokeela Lur planetan, eta, genetikoki mota horretako landare guztiak berdinak liratekeela; hori horrela izanik, **gizakion eta izaki bizidun gehienek bizitza** landare-mota bakar horren mende legoke. Izan ere, landareek oxigenoa sortzen dute, eta beraz, gizakiok eta izaki bizidun gehienek oxigenoa ezinbestekoa dugu arnasteko eta bizitzeko. Baina, **izurri** batek edo **klima-aldaketa** batek landare-mota horretan eraginen bat izan eta suntsituko balu, oxigenoaren sintesia ere desagertu egingo litzateke, eta gizakiok ere harekin batera galduko ginatke. Beraz, milaka landare-mota ezberdin egoteak, zera adierazten du: oxigenoa sintetizatzen duen «erantzukizuna» landare-mota asko eta askoren artean dagoela banatua, eta, ondorioz, haietako batek huts eginez gero, gizakiontzat ez legokeela arriskurik egongo. Horrexegatik, biodibertsitateari esker, bizitzak erreakzionatzeko eta egokitzeko gaitasuna du, Lurrean maila askotan izaten diren aldatketak gertatzen direnean.

Gainera ez dugu ahaztu behar, ekonomia biodibertsitatearen menpe dagoela, bera baita ekonomiaren energia-iturria, janari-erreserba iturria, gaixotasun asko eta asko sendatzeko gai kimikoen iturria eta industria lehengaien iturria.

Zer da Naturtzaindia?

NATURTZAINDIA – Biologiaren Kontserbaziorako Euskal Elkarte, irabazi-asmorik gabeko elkarte bat da eta, bertan, biologiaren kontserbazioa, ekologian, ingurumen-zientzietan eta hezkuntza arloan aritzen diren adituek, nazioarteko egungo ahalegin horretan ari dira lanean, hau da: biodibertsitatearen galera eragozten.

Naturtzaindiak, inbestigazio, kudeaketa, kontserbazio, dibulgazio, sensibilizazio, aholkularitza eta salaketarekin zer ikusia dituzten era guztietako ekintzak eta proiektuak egiten ditu.

Hernio-Gazume KBE natur erreserba integral bat al da? Zergatik?

Ez. Natura 2000 Sarearen helburuetariko bat, garapen iraunkorra lortzen laguntzea eta aldi berean, biodibertsitatea gordetzen ahalegintzea baita; betiere, tokiko eskaera zientifiko, ekonomiko, sozial eta kulturalak kontuan izanik. Beraz, batzuetan, habitat eta espezieak babesteko, **gizakiaren jardura tradizionalei jarraipena** eman behar zaie, eta, hainbatetan, **jardura horiek sustatu** ere egin beharko dira.

Alkizako udala Naturtzaindiarekin elkarlanean, biodibertsitatearen alde

Orain, Hernio-Gazume **Kontserbazio Bereziko Eremua (KBE)** izanik, KBEei dagokien Kudeaketa Plana abian jarri da eta kudeaketa plan honen barruan dauden hainbat neurri aplikatzen hasia da udala Naturtzaindiaren laguntzaz. Honela, Kudeaketa Planaren neurrietariko batek zera dio:

Plangintzaren indarraldian (6 urte), jabetza publikoan eta Berrezartze Ekologikoko Eremuen (BEE) barruan dauden baso-landaketen %100 bertako baso (baso autoktono) bilakatzea.

Beraz, adibidez, Alkizako udalak badu Kudeaketa Planaren neurri honen ezaugarri guztiak betetzen dituen lur-sail bat, hala nola, orain 60 bat urte alertzeekin landatu zuen 1,7 ha-ko saila (jabego publikokoa da eta Berrezartze Ekologikoko Eremuan kokatzen da).



Azpimarratzekoa da, gainera, sail honek baso autoktono bilakatzeko duen erraztasuna; izan ere, sail honen zenbait lekuetan, azpitik zuhaitz-landare nahikoa baitator eta landaketa gutxi batzuekin, basoa berreskuratzeko bidean izango baita.

Bestalde, etorkizunerako merkaturatzeko kalitatezko egurra lortu nahi izanez gero, alertze-sail honetan soilketa bat egin beharra zegoen, azken hamarkadetan ez baitzitaion inongo tratamendurik egin; eta zuhaitzak, bat bestearen ondoan oso gerturik zeuden. Naturtzaindiaren arabera, alertze horiek ongi bilakatu omen dira eta 20 m inguruko garaiera lortu omen dute, 25-30 cm-ko diametro normalarekin. Merkaturatzeko neurri egokiak lortzeko, oraindik gutxienez, beste 30 urte beharko dituzte.

Soilketa egin ondoren, botatuko alertzeekin bi aukera zeuden: Bata, hauen egurra saltzea, eta bestea, basoan bertan, uztea. Udalak bigarrenaren alde egin du jarraian aipatuko diren arrazoiengatik:

1.-Egun, egurraren merkaturatzea dagoen moduan, alertze-egur horiek saltzea lortu izanez gero, oso diru gutxi edo ezerez lortuko lirateke.

2.-Egur hila (zutik eta etzana) basoak berreskuratzeko ongari garrantzitsua da; bera baita, neurri batean, basoko bizitzari janaria ematen diona (basoko hiru espezieetatik batek, egur hila beharrezkoa du bere bizitzako faseen batean). Gainera, egur hilari esker: lurzorua bilakaera eta ezaugarriak hobetzen dira; luraren higadura gutxitzen da; zuhaitz askoren haziak ernetzeko eta babesteko lagungarria da; hobi ekologikoak ugaritzen dira, basoko biodibertsitatea areagotuz; kate trofikoetan parte hartzen duten ekoizle, kontsumitzaile eta deskonposatzaileen arteko loturak mantentzen dira.

Baita Hirumugarrieta inguruan baso eta gune soilen artean ekotonoa sortzeko 300 bat zuhaixka landatu dira (basaranak, elorriak, gereziendoak, urritzak...). Edo xaguzaharrei buruz ahinabat behaketa eta ikerketa egin dira. Eta abar.

Hernio-Gazume Kontserbazio Bereziko Eremua izendatzeak, aukera berriak eskaintzen dizkio Alkizako herriari.

Eta horiek ahal den era egokienean aprobetxatzea da udalak duen helburua. Alkizak, Gipuzkoa mailan, eta orain, Europa mailan, badu altxor bat: **bertako basoa**; orain arte egurra eman duena, eta hemendik aurrera beste gauza batzuk ere eskaini ahal dituena.



Alkizako udalak, herriko biodibertsitatea zaintzea eta gizakiok naturarekiko dugun harremana errespetuzkoa izatea ditu helburu; eta horretan dihardu.